UNAX UGALDE

ISAACH DE BANKOLÉ

SERGI LÓPEZ

ISEO

MARÍA DE MEDEIROS

EMMA SUÁREZ

BLACK IS BELTZA

A FILM BY **FERMIN MUGURUZA**

UNAX UGALDE ISAACH DE BANKOLÉ ISEO SERGI LÓPEZ EMMA SUAREZ MARIA DE MEDEIROS JORGE PERUGORRIA OSCAR JAENADA ANGELO MOORE RAMON AGIRRE ROSSY DE PALMA RAMON BAREA HANNO KOIM IGAN RUSIÑOL SERGIO ARAU VICTORIA MALDONADO

HUMANIZANO ESTUDIOS DIBULITOON 9 DUOS DRAFTOON HAMIA AIRE ZIZENARIA BERAI BEITA ANIMACIO ZIZENARIA INIGO BERASATEGI MUSICAL DANI AZPIARTE DIRECTOR ZIZENARIA JONE UNANUA PERSONAIEN DISEINUA JOSEP HOMS EDITIBA PEPE BOADA DIRECTORES ASISTENTES IVAN HOLGADO SONIDO VICTOR SANCHEZ EFEKTU KIKO VIDAL

PRODUKZIOA MIKEL ANTERO KONPOSIZIO DIGITALA USER T3D EDU CLEZ DANI AZPIARTE MUSIKA RAUL FERNANDEZ SOUNDTRACK KEPA DE ORBE DIRECTOR DIRECTORA FERMIN MUGURUZA, CAROL MARCOS GUIONA FERMIN MUGURUZA, HERNANDEZ CANO, EDUARDO SOLA

ZUZENDARIA FERMIN MUGURUZA

BLACK IS BELTZA · TAIKA · SETMAGIC · elkar · eitb · BARTON FILMS · FILM FACTORY

BLACK IS BELTZA ANIMAZIO FILMA 2018

PRENTSA TXOSTENA



URRIAREN 5A ESTREINALDIA ZINEMETAN

AURKIBIDEA

Fitxa teknikoa..... 04
Sinopsi Laburra / Editoreak dio..... 05
Sinopsi Luzea..... 06
Zuzendariak dio..... 07
Ahotsak..... 08
Musika..... 10
Zuzendariaren biografia..... 12
Talde teknikoa: Josep Homs..... 14
Pepe Boada..... 15
Mikel Antero..... 16
Iñaki Holgado..... 17
Mariona Omedes, Karin du Kroo..... 18
Beñat Beitia / Iñigo Berasategi..... 19
Animazio estudioak: Dibulitoon..... 20
Draftoon..... 21
Hampa..... 22
User T38..... 23
Ekoiztetxeak: Setmàgic Audiovisual..... 24
Talka Records & Films..... 25
Banaketa Estatuan: Barton Flims..... 26
Nazioarteko Salmenta Agentea: Film Factory..... 27
Komunikazioa..... 29

FITXA TEKNIKOA

Izenburua: **BLACK IS BELTZA**
Zuzendaria: **Fermin Muguruza**
Gidoia: **Fermin Muguruza, Harkaitz Cano, Eduard Sola**
Ekoizpen zuzendaria: **Jone Unanua**

Iraupena: **80 min**
Generoa: **Helduentzako animazioa**

Arte zuzendaria eta zuzendari laguntzailea: **Beñat Beitia**
Animazio zuzendaria: **Iñigo Berasategi**
Pertsonaien sorkuntza: **Josep Homs**
Estren diseinua: **Pepe Boada**
Prop-en diseinua: **Mikel Antero**
Storyboarda: **Kepa de Orbe**
Ilustrazioak: **Mariona Omedes, Karin du Kroo**
Konposizio digitala: **Dani Azpitarte, User T38**
Background-ak: **Iñaki Holgado**

Komunikazioa: **Nagore Vega**
Animazio ekoizpenaren zuzendaria: **Beñat Beitia**
Ekoizpen exekutiboa: **Fermin Muguruza, Oriol Marcos**
Ekoizleak: **Black is Beltza AIE, Talka Records & Films, Setmàgic, Elkar**
Nazioarteko salmenta-agentea: **Film Factory**

Ahotsak:
Unax Ugalde, Isaach de Bankole, Iseo, Sergi Lopez, Ramon Agirre, Rossy de Palma, Ramon Barea, Willy Toledo, Angelo Moore, Maria de Medeiros, Jorge Perugorria, Hamid Krim, Emma Suarez.

Musika:
Raül Refree, Fermin Muguruza, Anari, Maika Makovski, Manu Chao, Yacine, Ana Tijoux, Brenda Navarrete, Sonido Gallo Negro, Lengualerta, Ceci Bastida, Iseo.

Animazio estudioak:
Dibulitoon (Irun), Hampa (Valentzia), Draftoon (Rosario-Argentina), Nueveojos (Bartzelona), User T38 (Madril)

Hizkuntzak: **Euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, arabiera**
Ekoizpenaren hasiera: **2015eko urria**
Estreinaldia: **2018ko urria**

Webgunea: **www.blackisbeltza.eus**

SINOPSIA

SINOPSI LABURRA

1965eko urrian gaude. New Yorkeko Bosgarren Hiribidean desfilatzeko gonbita jaso du Iruñeko San Ferminetako erraldoien konpartsak. Ezingo dute, ordea, denek desfilatu: arrazagatiko bereizkeria dela kausa,agintari ipar-amerikarrek debekatu egin dute erraldoi beltzen parte-hartzea.
Gertaera historiko horretatik abiatzen da Black is Beltza, erraldoi horietako bat garraiatzeko ardura zuen Manex pertsonaiaren larruan sartuta. Ezustekoz betetako bidaia luze batean murgilduko da Manex, 1960. hamarkada ulertzeko giltzarri diren hainbat gertaera bertatik bertara ezagutuz. Horren lekuko, Malcolm X-ren hilketak eragindako kale gatazkak, Warholen faktoriako atmosfera bizarroa, Black Pantherrek Kubako zerbitzu sekretuekin harilkatutako harremana, edo hippyen hastapenak, lehen musika jaialdi erraldoietako giro psikodelikoan.

EDITOREAK DIO

Muguruzak, Canok eta Alderetek jauzi hirukoitza proposatu digute: iniziazio-bidaia, denboran barrena egindakoa eta abenturaz josia. Iniziaziokoa, garaiko soinu banda lagun, AEB Ameriketako Estatu Batuetako gizartean pil-pilean zeuden eromen psikodelikoan eta kultura hippyaren hastapenetan murgiltzen gaituelako. Denboran barrena egindakoa, hamarkada hartako gertaera garrantzitsuenetako zenbait biziaraztea lortzen duelako (Gerra Hotza, Che Guevararen heriotza, Francoren diktadura…). Eta, azkenik, abenturaz josia, Manexen sentimenduen grina, iraultza gosea, kemena, eta, nola ez, Amandarekiko maitasuna kutsatzen dizkigulako.

SINOPSI LUZEA

1965eko urrian gaude. New Yorkeko Bosgarren Hiribidean desfilatzeko gonbita jaso du Iruñeko San Ferminetako erraldoien konpartsak. Ezingo dute, ordea, denek desfilatu: arrazagatiko bereizkeria dela kausa, agintari ipar-amerikarrek debekatu egin dute erraldoi beltzen parte-hartzea.

Benetako gertaera horretatik abiatuta, Muguruzak, Canok eta Alderetek Manex Unanueren historia asmatu dute: erraldoi beltz horietako bat garraiatzeko ardura zuen fikziozko pertsonaia. Bere kideek agintarien erabakiari men egin izana deitoratuz, etxera ez itzultzea erabakiko du Manexek. Gazte honen begietatik izango dugu 1960ko hamarkadaren erdialdean gizartea errotik astindu zuten gertaeren berri: Malcolm X-ren hilketak eragindako kale gatazkak, Warholen faktoriako atmosfera bizarroa, Black Pantherrek Kubako zerbitzu sekretuekin harilkatutako harremana edo hippyen hastapenak, lehen musika jaialdi erraldoietako giro psikodelikoan. Gerra Hotzaren oihartzuna ere agerikoa izango da, alde bietako espioien artean zeuden interes eta katramila ezkutuak tarteko.

Kuban urte batzuk igaro eta trebakuntza berezia jaso ondoren, Manexek Che Guevara ezagutuko du hura Boliviara joateko zorian dela. Egiteko ezinago delikatu batean abiatuko da gero: eraila izateko arriskua duen Black Panther bat AEB Ameriketako Estatu Batuetatik atera eta hari Habanaraino lagundu beharko dio. Horretarako, mundua alderik alde zeharkatu eta itzulinguruz betetako bidaia egingo du. Izan ere, ezinezkoa da bidaia hori zuzenean egitea: CIAk susmoa baitu kubatarrak zoru ipar-amerikarrean operazio berezietan ote dabiltzan.

Errealitatea eta fikzioa dantzan jartzen dituen intrigazko haria da Black is Beltza, deus falta ez duena: maitasuna, iraultza, espioitza. Eta horren guztiaren lagun, garaiko soinu banda bereizgarria, adierazkortasun grafiko handiz zuzen-zuzenean 1960ko hamarkadako bihotzera eramango gaituena.

ZUZENDARIAK DIO

1965 urtean New Yorken egindako argazki bat ikusi nuen: bertan Iruñeko erraldoien konpartsa, San Fermin jaietan ohikoa, agertzen zen New Yorkeko 5. etorbidean desfilatzen; eta argazki-oinean irakurtzen zen, arraza-diskriminazioa zela eta, debekatu egin zitzaiela desfilean parte hartzea bi erraldoi beltzei; berehala ohartu nintzen han istorio bat zegoela.

Gero, Kubara egin nituen bisitetako batean, ezkutuko misio baten, askotariko beste baten, kontakizunaz gozatu nuen, haren protagonistetako batek kontatuta; alegia, 1960. hamarkadako urteen amaieran Kubako Inteligentzia Dibisioko zerbitzu sekretuek nola egin zuten, Gerra Hotz betean, ezkutuko operatibo bat Kubako Iraultzak Estatu Batuetan begiko zuen eta bultzatzen zuen mugimenduetako bati (Black Panthers) laguntzeko. Kontatu zidan militante afro-amerikar bat salbatu nahi zutela, kontrainteligentziaren bidez jakin zutelako CIAk "garbitu" egingo zuela; eta Mexikotik sartu behar izan zutela, Estatu Batuetan harekin harremanetan jarri eta Kubara eraman, han errefuxiatu politikoaren statusa izan zezan, eta zein bidaldi gorabeheratsu eta harrigarria egin zuten horretarako. Garai hartan ohikoa zen desorientatze-maniobra nahasgarrietako bat izan zen, nazioartean ziharduten zerbitzu sekretuek beren susmoak berretsi ez zitzaten, hots, kubatarrak nahasturik zeudela atzerriko herrialdeetan agertzen ziren talde borrokalariekin.

New Yorkeko desfilea, Kubak zuzenduriko operazio ezkutua eta istorioak ukituriko hiriak, 1967 urtean girotuak, gure narrazioaren inguruan hasi ziren jira-biran eta dantzan, Iruñeko konpartsako erraldoiak bezala San Fermin jaietan; New York eta The Factory, Harlem eta Malcolm X-en heriotzaren ondorengo arraza-iskanbilak, Apollo aretoa eta soul-a, Muhammad Ali tximeleta gisa flotatzen zela, erleak bezala ziztaka, Kuba eta yoruba erritmoak, Mexiko eta Juan Rulfo infinitua, Los Angeles eta Tin Tan, Monterreyko festibala eta Xalbadorren bertsolari-finala, San Francisco eta Black Power, Montrealgo Expoa eta Charles de Gaulle, Algeria eta Cheikha Rimitti, Madril Francoren diktadura zitalaren pean, eta Che-ren, beti Che-ren, presentzia.

Istorio kilikagarri honek fikzioa eta errealitatea uztartzen ditu; espioitzaz, iraultzaz eta maitasunaz hitz egiten du; eta horren gainean hegaldaka Vietnam, Israelen 6 eguneko gerra, KGB, CIA eta MOSSAD, Bolivian gerrilla, mundu zabalean askapen-mugimenduak, droga psikodelikoak, sexu-askapena eta orgasmoaren iraultza, eta guztiaren gainetik, Otis Redding-en musika: Respect.

Fermin Muguruza

AKTOREAK

MANEX	**UNAX UGALDE**
WILSON CLEVER	**ISAACH DE BANKOLÉ**
AMANDA TAMAYO	**ISEO**
WARREN PHILLIPS	**SERGI LÓPEZ**
XEBERO	**RAMON AGIRRE**
SARGENTO BRAVO	**JORGE PERUGORRIA**
RUDY	**ANGELO MOORE**
AMIRA	**MARIA DE MEDEIROS**
LAIA	**EMMA SUAREZ**
CHE GUEVARA	**OSCAR JAENADA**
RUTH ABRANSOM	**ROSSY DE PALMA**
RAMIRO	**RAMON BAREA**
YASSIM	**HAMID KRIM**
JUANPE	**JOSEAN BENGOETXEA**
TENIENTE MUÑOZ	**WILLY TOLEDO**
GUARDIA CIVIL	**ANDER LIPUS**
JIMMY	**LENVAL BROWN**
ESPERANZA	**VALERIA MALDONADO**
JUAN RULFO	**SERGIO ARAU**
ELISEO	**JORGE FERRERA**
TIN-TAN	**GIANCARLO RUIZ**
DWAYNE	**JOSH KUN**
CTE. ANTONOVICH	**RAY FERNANDEZ**
GUERRILLERO 1	**VICTOR NAVARRETE**
GUERRILLERO 2	**JORGE FERRARA**
LAURENT	**IBAN RUSIÑOL**
PEDRO DEL TALLER	**EXPRAI**
PANCHO VILLA	**JOSEAN BENGOETXEA**
HERNAN CORTÉS	**EXPRAI**
SMITHY	**GIANCARLO RUIZ**
AZAFATA	**MARLENE DERMER**
SF DENTISTA	**RAMON ZUMITRENKO**
OTIS REDDING	**STUART CASSON**
BEN CAULEY	**KO THE KNOCKOUT**
EMORY DOUGLAS	**STUART CASSON**
ANGELA DAVIS	**SISTAEYERIE**
BORDER POLICE 1	**DRAZTO GOMEX**
BORDER POLICE 2	**MARCO ALDACO**
SERGEI TITOV	**GIANCARLO RUIZ**
IMAN	**MARIEDER IRIART**
AMAL	**MARIAM BACHIR**

VILANOVA

MUSIKA

Raül Refree eta **Fermin Muguruza Sant Andreuko** (Bartzelona) **Fabra i Coats** Sormen Fabrikako espazio batean instalatu ziren eta bertan sortu zuten filmaren musika.
Pieza inzidentalak dira. Abestietan hainbat artistek hartu dute parte: **Maika Makovski**, **Anari**, **Iseo**, **Yacine**, **Amel Zen**, **The Sey Sisters**, **Ceci Bastida (Tijuana No!)**, **Ana Tijoux** edo **Manu Chao.**

Soinu bandak 1960. hamarkadako abesti-zatiak ere baditu, hala nola: **He was really saying something (The Velvelettes)** edota **You're wondering now** Jamaikako originala, Andy&Joey-rena (ondoren hainbat bandek bertsionatu dutena: The Specials, Amy Winehouse…).

ZUZENDARIAREN BIOGRAFIA

Fermin Muguruza, dudarik gabe, nazioarteko musika panoramako irudietako bat da. Irunen jaioa, 1980. hamarkadaren hasieran **Kortatu** sortu zuen, euskal musikan itzal handienetakoa izan duen taldeetako bat. Taldea oso konprometituta zegoen politikoki eta sozialki. Hasieran gaztelaniaz abesten zuten, eta Muguruzak euskara ikasi ahala, euskaraz abesten hasi ziren ska, punk eta reggae elementuak gehituz.
1980. hamarkadaren amaieran Ferminek aro berri bat hasi zuen. Irrati-esatari lanak beste hainbatekin uztartu zituen: **Igo Bolumena** (desagertutako Egin Irratian) magazine musikalaren zuzendaria izan zen, **Negu Gorriak** banda berria sortu zuen, eta kontzertuak eman zituen Europatik eta Amerikatik.
Era berean, **Esan Ozenki** zigilua sortu zuen. Zigilu horrekin publikatu zituen bere diskoak, eta hainbat banda lagundu zituen azalarazten. 6 diskoren ondoren taldea utzi zuten, eta bakarkako bidea hasi zuen Ferminek. Bide hori kolaborazioz betetakoa izan zen, baita musika estilo ezberdinetako sartu-irtenez betetakoa ere: reggae, funk, jazz eta elektronika, esaterako.
2003an **Jai Alai Katumbi Express** nazioarteko bira egin zuen Manu Chaorekin, bien ibilbide profesional luzeko abestiak nahasiz.
Lagun-minenetakoa du Chao Kortaturen garaitik. 2004an nazioarteko bira egin zuen Fermin Muguruza Kontrabanda talde propioarekin. 2006an **Euskal Herria Jamaika Clash** lana sinatu zuen **Talka** zigilu berriarekin. Jamaikan grabatu zuen, hango lehen mailako musikariekin elkarlanean. Orduantxe zuzendu zuen lehen dokumentala: **Bass-que Culture**. Marley familiaren estudioetan grabatu zuen diskoa eta grabazio-prozesu hori jasotzen zuen dokumentalak. 2008an grabatu zuen orain arteko estudioko azken lana, **Asthmatic Lion Sound systema**, munduko 20 hiri baino gehiagotan erregistratu zuena. Eta **Checkpoint Rock. Canciones desde Palestina** dokumentala zuzendu zuen. 2009ko Donostiako Zinemaldiko erreferentzietako bat izan zen.
El salto de Beamon film laburraren musika ere konposatu zuen, **Xomorroak (Bizitza Lorontzian)** antzerki-obraren abestietan lan egin zuen, Jesus Garay-ren **Mirant al Cel** fikzio-dokumentalaren musika konposatu ere bai, eta 2010. urtean zehar, **Next Music Station** dokumental-saila zuzendu zuen **Al Jazeera Documentary Channel** katearentzat.
2011-2012an Eider Rodriguezekin batera **Zuloak** idatzi zuen, eta gero berak zuzendu eta ekoitzi. Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuen 2012an, Zabaltegi sailaren barruan. Filmak ibilbide luzea izan zuen Espainiako Estatuan zein nazioartean, eta oraindik ere, munduko hainbat txokotan ematen jarraitzen dute. 2014ko azaroan nobela grafiko bat editatu zuen, Harkaitz Cano idazlearekin batera sortutakoa eta Jorge Aldereteren ilustrazioekin osatutakoa: **Black is Beltza**. Ondoren erakusketa bihurtu zen gainera, eta Bilboko Alhondigan 13.000 pertsonek bisitatuta zuten bi hilabetetan.
2015ean diziplinarteko lana zabaldu zuen Muguruzak, eta musika-antzerkian murgildu zen Albert Pla eta Raul Fernandez Refree-rekin. **Guerra** izeneko obra estreinatu zuten Bartzelonako Grec jaialdian, Nueveojos ikus-entzunezko estudioaren lanarekin eta Pepe Miraveteren zuzendaritzapean. 2016an bira egin zuten lan horrekin.

2016. urtea izan zen **NOLA?** Irun meets New Orleans proiektuaren urtea ere. Batetik, diskoa egin zuen: bere karrerako 10 abesti hautatu zituen eta hango zaporea eman zien. Bestetik, dokumentala kaleratu zuen. Bertan, diskoaren grabazioko musikariek parte hartzen dute, eta hiriaren egoera zein den kontatzen dute, Katrinak suntsitu eta 10 urtera.
Frantzian, Kolonbian, Japonian eta Aljerian Black is Beltza komikiaren edizio ezberdinak aurkeztu ondoren, erakusketa ibiltaria prestatu zuen urte horretarako Bartzelonako Arts Santa Monica Sormen Zentroan. Bertan egon zen ekainaren 21etatik uztailaren 31ra. Gainera, Muguruzak berak ere han egin zuen egonaldia, eta hainbat jarduera paralelo antolatu zituen. Egonaldiaren aitzakiarekin, esaterako, New Orleanseko musikariak gonbidatu zituen bertara, eta betiko bere euskal musikariekin batera, New Orleans Basque Orkestra sortu zuten. Bost kontzertu eman zituzten ekainaren amaieran eta uztailaren hasieran. Egonaldi horretan dub diskoa ere grabatu zuen Arts Santa Monica sessions, Charlart58 musika-ingeniariarekin.
2017an Sant Andreun (Bartzelona) bizitu zen. Han ere egonaldia egin zuen Fabra i Coats Sormen Fabrikan. Black is Beltza filmaren musika sortu zuen, eta publikoari erakutsi zion nolakoa den horrelako lan-prozesu bat. Horrez gain, bertako literatura, komiki eta zinema jaialdietan inplikatu zen. Egonaldi horretatik sortu zen Taller de Musics-ekin kolaborazioa ere. Elkarlan horren emaitza bi kontzertu izan ziren: Micaela Chalmeta big band femeninoa sortu zuen, eta Donostian eman zuen lehen kontzertua Adarra Saria jaso zuenean. Bere ibilbide profesionalagatik eman zioten saria Donostian, ekainean.
Bigarren kontzertua uztailean izan zen, Grec jaialdiaren harira.
Soinu berriak topatzeko lanean, **The Suicide Of The Western Culture** talde elektronikoarekin elkartu zen, eta 2017ko abenduan **B-Map 1917 + 100** diskoa kaleratu zuten.

BIOFILMOGRAFIA:

BASS-QUE CULTURE
(TALKA RECORDS & FILMS / ETB) - 2006

CHECKPOINT ROCK. SONGS FROM PALESTINE
(FILMANOVA, K2000) - 2009
FERMIN MUGURUZA / JAVIER CORCUERA

NEXT MUSIC STATION SERIES
(TALKA RECORDS & FILMS / AL JAZEERA NETWORK)
2010 / 2011
-**NEXT MUSIC STATION: LEBANON I / II**
-**NEXT MUSIC STATION: EGYPT I / II**
-**NEXT MUSIC STATION: MOROCCO I / II**
-**NEXT MUSIC STATION: TUNISIA**
-**NEXT MUSIC STATION: SYRIA**
-**NEXT MUSIC STATION: KUWAIT/BAHRAIN**
-**NEXT MUSIC STATION: YEMEN**
-**NEXT MUSIC STATION: SUDAN**

ZULOAK
(TALKA RECORDS & FILMS) - 2012

NOLA?
(TALKA RECORDS & FILMS) - 2015

BLACK IS BELTZA
(TALKA RECORDS & FILMS/SETMAGIC/ELKAR) - 2018

TALDE TEKNIKOA

JOSEP HOMS
Pertsonaien sorkuntza - Black is Beltza

Homs komiki marrazkilaria eta ilustratzailea da, 1975eko maiatzaren 15ean jaio zen Bartzelonan. Lanean hasi zenean, ilustrazioak egiten zituen publizitate-kanpainetarako eta magazinetarako, komikien mundura jauzi egin zuen arte. Hori da bere benetako bokazioa. Hastapenetan istorio laburrak egiten zituen fanzineetan eta agentziek egindako enkarguei erantzuten zien. Cimoc aldizkari mitikoan istorio labur bat egitera ere iritzi zen 2000. urtean. Era berean, urteak eman zituen Kataluniako haurrentzako aldizkari Revista dels SUPERS-en hilero publikatzen, aharik eta AEB Ameriketako Estatu Batuetara joatea erabaki zuen arte. Marvel-entzat ale solte batzuk marraztu zituen, Red Sonja-rentzat lau zenbakiko serie bat egin aurretik. Azken lan horrekin editoreen konfiantza irabazi zuen eta gerlari ezagunaren saila jarri zuten bere esku. Hilero ale bat marraztu zuen bi urtez. 2008an, lehen alaba izan ostean, bide berriari ekin zion eta Europako merkatura itzuli zen. Erosoago sentitu eta bertan geratzea erabaki zuen. Dupuis argitaletxe frantziar-belgikarrean hasi zen lanean, eta La Vieille Dame Qui n'Avait Jamais Joué Au Tennis (2009) kolektiboarentzat lehen orrialdeak ekoitzi zituen. Zidrou gidoilariaren istorio laburrak jasotzen ditu kolektiboak. Argitaletxe berdinarentzat L'Angélus (2010-2011) publikatu zuen, Frank Giroud-ek sortutako gidoiarekin egindako diptikoa, Secrets sailekoa. Ondoren, Stieg Larsson-en Millenium saga ezagunaren komiki-adaptazioa eskaini zioten. Sylvain Runberg izan zen gidoilaria esperientzia hartan, eta Homs-ek estiloa eta sailaren unibertso grafikoa sortu zituen. Adaptazioaren 1, 2 eta 5. tomoak egin zituen. Azkenik, 2015ean, Dargaud argitaletxera egin zuen jauzi, eta bertan egin du lan bere proiektu pertsonalenean. Berriro Zidrou gidoilariarekin elkartu ondoren, SHI (2017) izeneko sail berri bat sortu zuen: genero istorio bat da, Londres viktoriarrean kokatutakoa; publikoaren eta kritikaren aldetik sekulako harrera izan du, eta orain arte bi tomo publikatu ditu.





PEPE BOADA
Estren diseinua - Black is Beltza



-Kolorista, animazio-tartekatzaileak. Estudio Andreu
-Marrazkilaria, gidoilaria eta azal-egilea El Víbora aldizkarian
-El Víbora erakusketa, Círculo Artístico de Bellas Artes (Madrid, 1983)
-Erakusketa ibiltaria Makoki 1977-1987
-Ilustratzailea (Layout) Disney-Paris eta Egmont (Secciones Ilustradas)
-Storyboarder-a (La mujer del anarquista Marie Noëlle. ZIP films, 2008)
-Marrazkilaria eta gidoilaria Kiss Comix aldizkarian
-Narratiba grafikoko irakasle hurrengo uda letxeetan: Bartzelona Sants, Torre LLobeta, Badia, Barbera del Valles eta Melilla
-AEC Asociación Española de Caricaturistas-en (Espainiako Karikaturisten Elkartea) sortzaileetako bat eta presidenteorde ohia
-Storyboarder-a Tex (Neptuno Films) animazio-sailean
-Publizitate-ilustratzailea, web, packaging & games
-Storyboarder-a Bibi (A Film) animazio-sailean
-Character desing (Black is Beltza, ekoizten)

MIKEL ANTERO
Prop-en diseinua - Black is Beltza

Antero Oiartzunen (Gipuzkoa) jaio zen 1980. urtean. 2D animatzailea da, ilustratzailea eta errealizadorea. Txikitatik du marrazteko grina, horregatik erabaki zuen Arte Ederrak ikastea Leioan (Bizkaia). Han eman zituen animazioan lehen pausoak. Donostian ikasten jarraitu zuen ondoren, espezializatu egin zen eta Sintesys eskolako Animazio eta FX masterra egin zuen. ETBn aktore-lanak egin zituen Hasiberriak, Goenkale eta Vaya Semanita sailetan. El Terrat-entzat VHS bi denboraldiko saila grabatu, editatu eta postproduzitu zuen, eta Qué vida más triste-ko mutilekin lan egin zuen. Horrez gain, Irungo Kunsthal eskolan animazio espezialitatea sortzea lortu zuen. Bestalde, proiektu pertsonalak garatu zituen eta animazio- eta motion graphics estudio propioa (UNDO) sortzeko lan egin zuen.

SOMUGAren Yoko animazio-sailean errealizadore gisa ere lan egin du; Fermin Muguruzaren Black is Beltza-rako concept artist bezala ere bai; LAMI komikia editatu du, eta komikiak egiten ditu Gaztezulo aldizkarirako. Gainera, hainbat master-class eman ditu arteari buruz, pertsonaien diseinuari buruz eta storyboard-ei buruz Mondragon Unibertsitatean. Pintxo Developers-en kide ere bada (bideo-jokoetako profesionalen eta zaleen Gipuzkoako Elkartea), ANIMAKOM nazioarteko animazio jaialdiarekin ere kolaboratu du, eta gaur egun animazio espezialitatearen arduraduna da Kunsthal eskolan, eta animazioari buruzko eta pertsonaien diseinuari buruzko ikasgaiak ere ematen jarraitzen du.



IÑAKI HOLGADO
Background-ak - Black is Beltza

Donostian jaio zen 1973. urtean eta 20 urterekin Irungo Dibulitoon estudioan hasi zen lanean, hainbat ekoizpenetan: sailak, film luzeak… Bereziki pertsonaien diseinuan eta storyboarder gisa aritu da, honakoetan: Supertramps, Alex y Alexis, Maroons, Glup, Cristobal Molón. Hamarkada batzuen ondoren, animazioa utzi zuen denboraldi luze batez. 2015ean berriro itzuli zen mundu horretara LOTURA estudioarekin, eta Nur eta Herensugearen Tenplua-rentzat fondoak (atzealdeak) egin zituen. Animazio lanarekin batera, denbora asko eskaini dio komikiak marrazteari, dozena bat album publikatu ditu, eta hainbat hizkuntzetara errealizatu eta itzuli dituzte. Horrez gain, komiki-aldizkarietan hainbat kolaborazio asko egin ditu: Heavy Metal, Spirou, Xabiroi, Penthouse cómics…
Bere komikietako asko euskarazkoak dira, beti Harkaitz Canorekin gidoiekin. Hala ere, merkatu frantziar-belgikarrean egin du lan gehiena, eta bere azken sailak, Verdun-ek, sekulako arrakasta izan du.





MARIONA OMEDES, KARIN DU KROO (NUEVEOJOS ESTUDIO, BARTZELONA) ILUSTRAZIOAK - BLACK IS BELTZA

Nueveojos estudioan ikus-entzunezko komunikazioa lantzen dute, eta interes berezia dute kulturarekiko. Lan honi autore ikuspegia ematen diote, horregatik, proiektu bakoitza sormen espazio irekia da.

2008. urtetik zerbitzua eskaintzen diete ekoiztetxeei, agentziei, instituzio publikoei, artistei eta mota guztietako sortzaileei. Hiru kidek osatzen dute taldea, adituak dira postprodukzioan eta arte-zuzendaritzan. Horrez gain, espezialista eta sortzaile onenekin kolaboratzen dute.

Diziplinarteko optika kooperatibo batetik ulertzen dute ekoizpena, horregatik, enkargu bakoitza komunikazio-pieza bakana da.

Finean, ideiak irudiekin komunikatzen dituzte.

Proiektuak: Albert Pla-rekin egiten dute lan asko: Guerra y Miedo, besteak beste. Mapping-ak ere egiten dituzte: Casa Batllo, Love Batllo, La masia del Barça, F.C. Barcelona triplete.



BEÑAT BEITIA
Zuzendaritza artistikoa - Black is Beltza

Sintesi irudien errealizadorea, produkzioan eta prozesu artistiko-teknikoen gainbegiratzaile gisa espezializatua, 2001. urtetik dabil animazio proiektuetan murgilduta.

2003-2013 Digital Dreams Films sortu eta bertan lan egin zuen: ekoizpen iraunkor eredua bultzatzen du, ekoiztetxeak eta animazio estudioak osatutakoa, 3D formazio espezializatua oinarri.

2006an film luzeen ekoizpen exekutiboan zentratu zen. Garai hori titulu entzutetsuen koprodukzioarekin osatu zuen: TVE, TVC edota ETBrekin lan egin zuen Cher Ami eta Papá Soy una Zombi bezalako filmetan.

2013. urtetik Dibulitoon Studio, Somuga, Baleuko edo Talka Records & Films bezalako ekoiztetxeekin egiten du lan, prozesu artistisko-teknikoen zuzendaritzan, esaterako, honakoetan: Dixie y la Rebelion Zombi, Yoko edo Elcano, la primera vuelta al mundo.

Gaur egun Fermin Muguruzaren Black is Beltza animazio film luzearen post-produkzioan dago murgilduta.

IÑIGO BERASATEGI
Animazio zuzendaritza-
Black is Beltza

Donostian jaioa, 1988. urtean hasi zen animazio munduan bere ibilbidea. Diseinu grafikoko ikasketak bere lehen lanekin uztartu zituen, hainbat estudioetan lan egin zuen 2D animatzaile gisa.

Laster ezagutu zuen ordenagailu bidezko animazioa eta bere bizitza profesionalaren zati handi bat eman du horretan lanean. Urteetan egin du lan 3D animazioko animatzailea eta gainbegiratzaile bezala lanean, eta orain berriro 2D animaziora itzuli da Talka Records eta Black is Beltza film luzearen eskutik.

Planet 51 eta Tadeo Jones bezalako film luzeetan lan egin du, beste askoren artean, edota Yoko y sus amigos sailean duela gutxi. Sail hori munduko 40 herrialde baino gehiagotan eman dute.

ANIMAZIO ESTUDIOAK

DIBULITOON STUDIO (Irun)
Animazio ikuskapena - Black is Beltza

Dibulitoon Studio SL ikus-entzunezko ekoiztetxe independentea da, Espainiako Estatuan eta nazioartean sona handia duena. 1991. urtean hasi zuen ibilbidea. Animazio film luzeak egiten espezialista da, azken teknologiak eta teknikak erabiltzen ditu, bereziki OWS animazio estudioa du eta ikus-entzunezko produkzio propioa.

Espainiako Estatuan animazio film luzeen ekoizle nagusienetakoa da, telebista kate nagusien esku jarri ditu marrazki bizidunen filmak, dokumentalak, animazioak eta telesailak.

Honakoak dira bere balora nagusiak: azken teknikak eta diseinuak eskaintzea; kalitatea produktu guztietan; errealizazioetan duten magia eta imajinazioa; eta eskaintzen duten konfiantza. Gainera, teknologia berrienak erabiltzen ditu irudien postprodukzioan, eta horren erakusle da euren filmak 50 herrialde baino gehiagotan ikus daitezkeela.

Filmak / ekoizpenak: El Ladrón de sueños, Glup, SuperTramps, Cristóbal Molón, Mystikal, Papa soy una zombi, El corazón del roble, Dixie y la rebelión zombi, Yoko y sus amigos, Teresa y Tim.

Hainbat ekoizpen Goya sarietarako izendatu dituzte: Teresa y Tim, Yoko y Sus Amigos, Dixie y la Rebelión Zombi, El Corazón del Roble, Papá Soy una Zombi, Supertramps,
Glup, El ladrón de Sueños.





DRAFTOON ANIMATION STUDIO (Rosario, Argentina) 3D Animazioa - Black is Beltza

Animazio digitaleko estudioa da. Ikus-entzunezko produktuak errealizatzen dituzte: iragarkiak, film luzeak, animazio-sailak… Bai 2D baita 3D-n ere.

Tamaina handiko animazio proiektuak landu ahal izateko nukleo errealizadore bat izateko beharretik sortzen da estudioa. Hala, bi koprodukzio egin dituzte: 26 kapituluko Blackie & Company saila, eta Olentzero y el secreto de Amila animazio filma.

Ikus-entzunezko errealizazio digitalean adituak diren arlo ezberdinetako profesionalek osatzen dute estudioa, eta etengabe ari dira proiektu berriak egiteko erronkak bilatzen, bai koprodukzioan zein zerbitzuak eskainiz.

Lanak: El secreto de Amila, Bubbles, Blackie & Company.

Honako filmetan ere parte hartu dute: Metegol, El Cid, Winnie the Pooh, Gisaku.

HAMPA STUDIO (Valentzia)
Layout / Animazioa - Black is Beltza



1997. urtean sortu zen, ilustrazio eta multimedia estudio gisa. Munduko enpresa eta erakunde askorekin lan egiten dute, eta proiektu bakoitzari dagozkion animazio-soluzioak eskaintzen dituzten, baita produkzio osoak ere.

Bezeroentzat diren proiektuak 0tik hasita lantzen dituzte, hala produkzio bakoitza ezberdina eta esklusiboa da. Produkzio prozesu guztiak gertutik jarraitzen dituzte bezeroarekin batera, kalitate estandarrak lortzen dituztela ziurtatzeko.

Sortutako lanen artean: Margarita, The End, Toy Matters, Usa el Coco, eta Laika, Aventuras
espaciales eta The Shadownsters telesailak.





USER T38 (Madril)
Konposizio digitala / Poster-a - Black is Beltza

User T38 2001. urtean sortu zuten: ekoiztetxea da, postprodukzio estudioa, diseinu grafikokoa, ohiko animaziokoa, 3Dkoa eta diseinu kontzeptualekoa.

Hasiera-hasieratik interesa izan dute kideek ikerketarekiko eta teknika berritzaileak garatzearekiko, bai zineman zein publizitatean.

2016ko azaroaren 16an User T38: 15 años diseñando carteles de cine izeneko erakusketa inauguratu zuen, 15 urtetan egindako zinema-kartel onenen errepasoa.

POSTER TEASER BERLINALE 2018

EKOIZTETXEAK

SETMÀGIC AUDIOVISUAL
(Bartzelona)
Oriol Marcos: Ekoizpen exekutiboa - Black is Beltza

2007an sortua, Bartzelonako ekoiztetxe independentea da, eta zinemarako eta telebistarako edukiak ekoizten ditu.

Oriol Marcosek 15 urte eman ditu zuzendaritza eta produkzio lanak egiten, eta zuzendari entzutetsuekin egin du lan: Woody Allen (Vicky, Cristina, Barcelona), Manuel Huerga (Salvador), Alejandro Doria (Las Manos) edo Carlos Saura (Buñuel y la mesa del Rey Salomón).

2011n erabaki zuen ekoiztetxe honetako taldera batzea, eta ekoizpen exekutiboaz arduratzea. Film luzeetan eta dokumentaletan esperientzia zabaldu du, baita telebista programetan ere.

Horrez gain, irakaslea da ESCAC, IDEC-Pompeu Fabra eta La Universitat de Vic-en.









TALKA Records & Films
(Irun)
Jone Unanua: Ekoizpen zuzendaria - Black is Beltza

Esan Ozenki (1991-2001) eta Metak-Kontrakalea (2002-2005) diskoetxe independenteak desagertu ondoren, Fermin Muguruza zuzendariak eta Jone Unanua ekoizpen zuzendariak plataforma berri bat sortzea erabaki zuten. Hala, euren lan musikalak eta zinemakoak modu autogestionatuan editatu ahal izango zituzten.
2006an bertan argitaratu zituzten Kingston-eko Tuff Gong estudioetan grabatutako Euskal Herria Jamaika Clash diskoa eta Jamaikako esperientziari buruzko (eta musika ibilbide pertsonalari estuki lotutako) dokumentala: Bass-que Culture.
Ordutik, Talka Records & Films ekoiztetxeak Fermin Muguruzak sortutako edo ekoitzitako diskoak editatu ditu, baina zuzentzen dituen filmak, edota zuzendari-laguntzaile bezala parte hartzen duen horiek.

2006 Bass-que Culture (F. Muguruza)
2007 Afro-Basque Fire Brigade. Road Movie (F. Muguruza/Asier Garcia)
2009 Checkpoint Rock. Canciones desde Palestina BSO
2010 / 2011 Next Music Station
(11 Dokumentalen ekoizpena Al Jazeera katearentzat)
2013 No More Tour
(Zuzendaritza Daniel Gomez/Zuzendari laguntzailea: F. Muguruza)
2015 Nola? (F. Muguruza)
2018 Black is Beltza (F. Muguruza)

BANAKETA ESTATUAN

BARTON FILMS
(Bilbo)

Barton Films 1.992ko ekainean sortu zen. Hasiera batean banatzaile eta ekoiztetxe bezala.

Bere arlo garrantzitsuena, zinema-banatzailea izatea da, Espainiar Estatuaren espazio barruan. Europako, asiako eta latinoamerikako zinema independentearekin egiten du lan. Beste espazio oso garrantzitsua, euskal ekoizpena (bai euskaraz bai gaztelaniaz) da, gaur egun euskal produktore garrantzitsuenekin kontaktuak izanez eta lan eginez. Gainera Filmax Group-en eta Caramel Films-en materiala banatzen du, Estatuaren ipar guztian. Baterako banaketa du Filmax-ekin, euskal ekoizpen desberdinetan, estatuko lurraldea banatuz.

Ekoizpenari dagokionez, era sozialeko, komedia eta animazio ekoizpen desberdinetan parte hartu du.

Barton zinema-areto ezberdinetan partizipazioak izan ditu, eta gaur egun, areto desberdinetan partaidetza dauka eta kudeatzen ditu.

Zinemaldi eta zinema-merkatu garrantzitsuenetan dago, bai estatukoetan bai nazioartekoetan (Donostia, Valladolid, Cannes, Berlin, Guadalajara, Ventana Sur, etab.)



NAZIOARTEKO SALMENTA AGENTEA

FILM FACTORY (Bartzelona)

Film Factory-ren helburua da Espainiako Estatuan ekoizten diren lan garrantzitsuenak nazioartean saltzea. Zerrenda selektibo batekin egiten du lan, nazioartean arrakasta gehien izan dezaketen filmak hautatuz. Horrez gain, Europako eta Latinoamerikako ekoizpen-konpainia garrantzitsuenekin aritzen da elkarlanean.

Nabarmendutako pelikulak:

Contratiempo (Oriol Paulo)
El Clan (Pablo Trapero)
La Isla Mínima (Alberto Rodríguez)
Tarde para la ira (Raúl Arévalo)
Relatos Salvajes (Damian Szifron)
Handia (Jon Garaño / Aitor Arregi)

Tel: +34 933 684 608
info@filmfactory.es

KOMUNIKAZIOA

NAGORE VEGA
info@blackisbeltza.com

SARE SOZIALAK
Twitter: @Black_Is_Beltza
Facebook: BlackisBeltza
Instagram: #blackisbeltza
Web: **www.blackisbeltza.eus**

FERMIN MUGURUZA
Twitter: @muguruzafm
Facebook: MuguruzaFM
Instagram @muguruzafm
Web: **www.muguruzafm.eus**